

Lankidetza hitzarmen bat egin du Euskadi Fundazioarekin

**EROSKI IZANGO DA EUSKADI FUNDAZIOAREN
ELIKAGAI HORNITZAILEA**

- **Bi entitateek hitzarmen bat izenpetu dute euskal txirrindularitza sustatzeko, bultzatzeko, zabaltzeko eta garatzeko**
- **EROSKIk hornituko ditu talde profesionalak haien kirol beharretara egokitutako elikagaiekin**

Elorrio, 2021eko martxoaren 31.- [EROSKI](#) eta [Euskadi Txirrindulari Fundazioak](#) hitzarmen bat izenpetu dute EROSKI fundazioaren hornitzaile ofiziala izan dadin. Elikadura beharretara egokitutako hornidura poltsak emango dizkie UCI Pro Team mailako Euskaltel-Euskadi taldeari; UCI Women's Continental World Team mailako Laboral Kutxari; eta Laboral Kutxaren beraren 23 urtez azpikoenari. Baita fundazioak familiekin egiten dituen jardueretan ere.

Hitzarmenaren helburua da euskal txirrindularitza sustatzea, bultzatzea, zabaltzea eta garatzea. *"EROSKIk ohitura osasungarriak sustatzen ditu ekimen ugariaren bitartez. Zalantzarik gabe, kirol jardueraren onurak ohitura horien parte dira; hori dela eta, Euskadi Fundazioari lagundu nahi izan diogu profesional zein amateur arloan, Euskaltel-Euskadik etorkizun hurbilean duen hitzordutik hasita: Euskal Herriko Itzulia"*, adierazi du Komunikazio eta Harreman Korporatiboetako zuzendariak, Mikel Larreak.

"Guretzat harrotzeko modukoa da Eroskik gure filosofiarekin eta proiektuarekin bat egitea, gure txirrindularien osasunerako elikagai espezifikoaren hornitzaile izanez. Fundazioarentzat, funtsezkoa da enpresa kolaboratzaileen sarea ehuntzen jarraitzea, eta, gainera, hurbileko enpresak badira, Euskal Herrian errotuta daudenak, hainbat hobe. Eta are garrantzitsuagoa dena, pizgarri bat da gure kirol eta gizarte proiektua garatzen jarraitzeko, txirrindularitza zabaltzeko ahaleginean jarraitzeko", esan du Euskadi Fundazioko manager nagusiak, Jesus Ezkurdiak.

Ikus-entzunezko pieza

Gipuzkoako Shernan agentziak [ikus-entzunezko pieza](#) bat sortu du, zeinetan Euskadi Fundazioko zenbait txirrindularik parte hartu baitute;

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

Online prentsa aretoa



horren bitartez, asteburuz asteburu errepideak betez jendeak txirrindularitzaren alde erakusten duen grina islatu nahi izan da.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)